

# B

BARREN

TOKIKOM



## Onddoak laborategian sortzen

Asier Saiz eta Jaime Olaizola mendi ingeniariak

# Eskerrik asko!

Zuhaitz Gurrutxaga / Elena ileapaindegia / Fadek / Ainhoa fisioterapia zentroa / Gabi jatetxea / Doña Mercedes okindegia / Eizagirre okindegia / Unai Arrieta / Alkorta bakailaoak / Azkue argazki-denda / Beitia Arriola hortz-klinika / Beitia Arriola fisioterapia / Dori urdaitegia-Agurtzane ile-apaindegia / Garate jantzi-denda / Moma jantzi-denda / Hazten jantzi-denda / Ikus optika / Arkupe okindegia / Armueta harategia / Goroztiza liburu-denda / Lagunak Textil Hogar / Julen Zabaleta / Arauri lurrindegia / Goiara lurrindegia / Muruamendiaraz gozotegia / Ostruka jantzi-denda / Maidagan jantzi-denda / Sara jantzi-denda / Ziur jantzi-denda / Kontxi jantzi-denda / Astigarraga kirolak / Iriondo kirolak / Ezenarro mertzeria / Karkizano mertzeria / Skandalo mertzeria / Zubiaurre mertzeria / Haritz Eskal Dantzari Taldea / Amagoia gozoki-denda / Barrenetxea farmazia / Patxi harategia / Kiroldegiko taberna / Evoka shoes zapata-denda / Iñaki San Martin *Soarte* / Jairo Berbel / Niko Berbel / Uxue Alberdi / Napoka Iria / Pitxintxu opari-denda / Urratsak oinetako-denda / Xarlem creations / Zu eta Ni / Iñigo Martinez / Jasone Osoro / Lete jantzi-denda / Bire elektragailuak / Beristain edari-banatzalea / Ibar burdindegia / Olalsa / Pelegrin banatzalea / Ekain / Eskubaloi federazioa / Sanlo / Aldaz hagin-klinika / Leigar elektragailuak / Belaustegi jatetxea / Ibai Ondo jatetxea / Usua taberna / Lanbroa taberna / Egur / Morkaiko / Columbus etxea / Markel Bergara / El desvan de

Guliguri / Idama ile-apaindegia / Fotero okindegia / Ibarrenea okindegia / Ziarda harategia / Gautxo taberna / Ipintza / Izaro

Etxegibel / Mikel Goñi / Irati Agirreazaldegia / Maite

Maiora / Amets Txurruka / Gemma Monreal

/ Koldo Lizarralde / Mintxeta Atletismo

Taldea / Txomin Mujika / Iban Barrenetxea /

Natalia Mellado / Andres Alberdi / 6 neman 9 /

Maite Rementeria / Mainer Unda / Edu Iriondo /

Jon and Sugramas / Koska musika taldea /

Alfontso Guillo / Oinberri zentroa / Ken zazpi /

Softlan / Bikustik / Arima Beltza / JM Makazaga /

Iñigo Lariz / Debemen / Bitxi-bitxi / Barren azoka /

Jakoba Errekondo / Patxi Azpirotz / Jose Antonio ile-apaindegia / Emilia

Nogales / Uzuri optika / Kala lora-denda / Luvik zapata-denda / Ecuador

bidaiak / Ametsa kafetegia / Iturri taberna / Sigma jatetxea / Julio Bueno

ardandegia / Sahatzu harategia / Iriondo altzariak / Mekanosa / Ibamar

iturgintza / Edu Arrillaga / G & M / Txarriduna jatetxea / Tantaka taberna

/ Albaitaritzza klinika / Iriondo taberna / Viento Sur taberna / Mapfre /

Zezenbide auto-eskola / Danele Sarriugarte / Inprenta Arrillaga

**Elgoibarko Izarraren**  
**TONBOLARAKO**  
**opariak emateagatik**





Jose Luis Azpillaga

Urte berri on, Amaia! 2014.urtea estreinatu dugun honetan, berba berriei eta zaharberrietuei buruz hitz egitea begintandu zait. Gauza jakina da takian-takian hitz berriak agertzen zaizkigula kontzeptu edo ideia berriak izendatzeko. Aspaldi honetan ingelesetik hartutako berbak dabilta indarrean: *eskratxea*, *coworkinga*, *crowfundinga*, *tumatxak* (azken hau aspaldi geureganatua)...

Bestalde, hor ditugu geure ondare lexikaletik erreskatatu eta, arrazoiren bat dela medio, puri-purian jartzen diren hitzak ere. Esaterako, azken bertsolari-txapelketan entzundako *soraio*. Gogoan al duzu? *Soraio* hori Sustrai Colinak bota zuen, eta gutako asko hitza ulertu gabe geratu ginen. Ondoren, hiztegian begiratuta, *soraiok sorgor* edo *apatiko* dituela sinonimo ikasi dugu. Gogora datorkit Maialenek aurreko txapelketan botatako *gobara* hura ere. Berba horien gainean oso azalpen jakingarriak aurkitu ditut Maite Goñiren *Gaurko Hitza* blogean. Bidez batez esanda, zer nolako lan ederra eta eskergaitza egiten duen Maitek gure lexiko altxorretik hitzak erreskatatuz egunero-egunero!

**“Desosegu. Oso hitz egokia, gaurko gizarte egoeraren aurrean sentitzen dudana adierazteko”**

Azkenik, hor ditugu hitz eta esamolde zaharberriak, berba zaharrei esanahi eta zentzu berriak emanez sortuak, pertsona-talde batek bere komunikazioan txertatzen dituenak eta esanahi berezia hartzen dutenak talde horrentzat behinik behin. Hor ditugu Andoni Egañaren "aulkiak jartzea" hura, edota, azken egunetako "tantaz tanta" eta "itsasoa", esaterako.

Bukatzeke, lehen aipatutako *Gaurko hitza* blogean begira ibili naiz eta hitz bat aukeratu dut: *desosegu*. Urduritasuna, *ezinegona*, *sosegurik ez duenaren egoera* esan nahi du. Oso egokia iruditu zait gaur egungo gizarte-egoeraren aurrean sentitzen dudana adierazteko. Zuk zein aukeratuko zenuke?



Amaia Larrañaga

Baita zeuri ere, J.Luis. Zuk idatzitakoa irakurrita, nik uste, zu ere beste asko bezala, neu tarteko, bertsolariet bertsoen bidez ematen diguten gozamina maite dutenetakoa zarela. Gainera, gozamen horrek ikasteko balio izaten digu, zuk aipatu dituzun *soraio* eta *gobara* lekuko, ondo diozun moduan, askok begiratu behar izan genuen-eta hitzon esanahia hiztegiatan.

Dena dela, ikasteko beste modu eta bitarteko asko ere badira, besteak beste, aipatu duzun Maite Goñik bere blogean egiten duena. Ni neu jende nagusiari entzun eta erreparatzekoa naiz, zer ikasi franko daukagulako eurengandik, eta burura datozkit, astekari honetan, Makak egindako lanetik hartuta, ateratzen zituzten berba eta enparauak: ziherokoa, hastea egin, txotxolo merkea, ttirri-ttarrar, txoropittoa, saillian, oiñ hurrengo.... gozatu ederrak hartzen nituen, bai horixe! Baina, demaseko pena ematen dit oso gutxitan eta gutxik erabiltzeak, nik neuk ere, sarri, ahaleginak eta bi egin arren, natural esateko edo idazteko zailtasunak izaten ditut.

**“Gaurko egoerak desosegua sortzen digun arren, hobe patxadan bizitzea”**

Jakina, horrenbeste ikastekoren artean, aukeraketa egin behar, zeuk ere hala eskatu didazu; alegia, aukera dezadan, eta aukeran, nahiago zuk aukeratu duzunaren aurkakoren bat hautatzea, esaterako: patxada: Izan ere, bizi dugun egoerak, orokorrean, desosegua sortzen digun arren, gaixotu nahi izan ezean, hobe patxadan bizi izaten ahalegintzea. Horrek ez du esan nahi egoerari buelta ematen saiatu behar ez dugunik, bakoitzak beretik eta berean.





ESKERTZA

**FELIX ZABALETA ETXEBERRIA**

2014ko urtarrilaren 6an hil zen, 90 urte zituela.  
Haren oroimenez meza izango da, domekan, urtarrilak 19, goizeko 10:30ean Elgoibarko Sallobente auzoko basilizian. Sendiak bihotzez eskertzen dituzasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalaoa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikele Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar  
bizitzaren



MENDAKAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Eskerrik asko

Urtarrilaren 17a, jaiotzari agur esateko eguna, iritsi den honetan, abenduaren 20an, eztarrian pilatuta gelditu zitzaizkigun hitzak adierazi nahi ditugu. Aitak horren maitea zuen jaiotza martxan jartzeko ohorea izan genuen etxekook. Hunkituta, ez genuen gure esker ona adierazteko adorerik izan.

Jaiotza jartzen hasi zirenean sortu zen talde txiki hartako partaideetatik hasi eta gaur egunean taldea eratzen duten lagun guztieta- ra, urteen joan-etorrian taldekide izan diren guztiei, bihotzez eskertu nahi dizkiegu jasotako maitasun erakustaldi guztiak.

Aurrerantzean ere, gabon garaian, ilusioa eta poza zabaltzeko lanean jarraitzera animatzen zaituztegu.

**Antonio Barrenetxearen etxekoak** ☺

### 2014ko Juan Muguerza Nazioarteko Krosaren esker ona

Idatzi honen bidez, Elgoibarko Nazioarteko Juan Muguerza Krosaren LXXI. edizioa Mintxeta A.T. batzordeak eskerrak eman nahi dizkie, nola edo hala, euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien esku-zabaltasunari esker, berebiziko arrakasta izan zuen 2014ko urtarrilaren 12an egin zen krosak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzerako orduan emandako laguntzagatik, eta bestetik, gure herrira krosetan parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egindako harre- roa bero eta adeitsuagatik.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko herriaren izena, aste betez, mundu osoko kirolaren ikus- puntuan egon da, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon baitira.

Krosa herriarena da, eta herriak maitatzen jarraituko duela espero dugu. Edizio honetan Euskadiko krosik onena izan gara berriro ere; eta antolaketari eta kirol arloari dagokionean, estatuko hoberenatarikoa. Mundu mailan ere ikusi dute gure krosa desberdina dela.

Eskerrik asko baita ere, komunikabideei, ikusleoi eta bereziki laguntzen egon diren har- marka boluntarioei; handiak zarete!

Hortaz, lanean jarraituko dugu, datorren urtea ere, aurtengoa bezain ona edo hobea

izan dadin. Horrela bada, Mintxetan ikusiko dugu elkar, 2015.eko urtarrilean. Mila esker.

**Mintxeta Atletismo Taldea** ☺

### Barkamen eskean

Gaizki egindakoengatik barkamena eska- tzera gatoz gutun honetan. Joan zen astean, abenduaren 24ko tonbolarako opariak eman zituztenen zerrenda argitaratu genuen, esker- tza orrialde batean, baina zerrenda hartan fal- ta ziren batzuk. Doala hemen, beraz, gure barkamen eskaera zintzoena zerrendatik jausi zitzaizkigun guztiei: Zuhaitz Gurrutxaga, Elena ileapaindegia, Fadede ileapaindegia, Ainhoa fi- sioterapia zentroa, Gabi jatetxea, Doña Mer- cedes okindegia eta Eizagirre okindegia. Es- kerrik asko guztioi abenduaren 24ko goiz- eguerdi parte hura arrakastatsu egiten lagun- tzeagatik.

**Elgoibarko Izarra Elgoibarko Izarra** ☺

# FERMIN ZURIARRAIN

Filatelikoa

Hamalau bilduma jarri ditu ikusgai Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak aurtengo zigilu erakusketan, eta horien artean dago Fermin Zuriarrain elgoibartarrarena ere. Erreminta makinaren 100. urteurrenari eskaini dio erakusketa aurtengo filatelia elkarteak, eta hain zuzen ere, gai horren inguruko da Zuriarrainen bilduma. Lehen gizakiak erabiltzen zituen lanabesetatik hasi eta gaur egunera arte erreminta makinak izan duen ibilbidea jaso du zigilu bilduma batean. Joan zen zapatuan inauguratu zuten erakusketa, eta datorren domekara arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.



## “Zigilu bilduma batek ez dauka amaierarik”

**Noiz sortu zitzaizun zigiluetarako zaletasuna?**

Beste gauza batzuk biltzetik sortzen da filateliarako zaletasuna, nolabait esateko. Guk umetan gauza asko biltzen genituen, bereziki, kromoak. Lagunartean trukatzeko genituen futbolarien edota animalien kromoak, eta hortik abiatuta, zigiluak batzen hasi nintzen. Urte batzuetan laga egin nuen, eten bat egin nuen, baina 20 bat urte nituenean, berriz ekin nion lanari. Gaur egun nire zaletasuna da filatelia, eta denbora librearen zatirik handiena eskaintzen diot.

**Nola aukeratu zenuen bilduma osatzeko gaia?**

Herialde desberdinetako zigiluak biltzen hasi nintzen: Espainia, Andorra... lau edo bost herrialdetako zigiluak bildu nituen. Perretxikoei buruzko beste bilduma bat ere osatu nuen, eta gero erreminta makinari buruzkoa egiten hasi nintzen. Material apur bat baneukan, eta Eibarko Armeria Eskolaren 75. urteurrenerako bilduma prestatzeko

eskatu zidaten. Ez neukan material gehiegirik, baina prestatu nuen erakusketa baterako bilduma. Orain dela gutxi 100 urte egin ditu Armeria Eskolak eta urte hauetan guztietan materiala biltzen jarraitu dut. Orain askoz osatuagoa daukat bilduma.

**Nola osatu duzu bilduma?**

Zigiluak, gutunak, postalak eta beste hainbat elementu ditu nire bildumak. Bidaiek egiten ditudan bakoitzean saiatzen naiz batetik eta bestetik nire bildumarako materiala lortzen. Galizian Elgoibarko forjari buruzko bi gutunazal aurkitu nituen, eta Logroñon erosi nuen Elgoibarko erreminta makinari buruzko gutun bat. Poliki-poliki materiala bildu, eta gero, dena ordenatu behar da. Materialaz gain, gaiari buruzko informazioa ere aurkitu dut, bilduma osatzeko. Patxi Aldabaldetrek eta Karmelo Urdangarienek erreminta makinari buruzko asko idatzi dute, eta haien liburuetatik informazio asko atera dut. Pozik nago bildumarekin, baina falta zaizkio gauzak oraindik.

**Noiz ematen da bukatutzat bilduma bat?**

Inoiz ez, zigilu bilduma batek ez dauka amaierarik. Ni pozik nago bilduma honekin, eta erakusketa baterako ondo dago, baina lehiaketa batera ezingo nuke aurkeztu. Gauzak falta zaizkio, eta beste elementu batzuk soberan dauzka. Zigiluak ez diren elementuak ere jaso ditut, eta horrelakoak ez dituzte onartzen lehiaketetan.

**Nola lortzen dituzu zigiluak?**

Bidaietan, filatelia-elkarteetan, aldizkarietan... Materiala erosi ere egin daiteke, eta nik erosi izan ditut gauzak, baina gehiegi ordaindu gabe. Nire bildumako elementurik garestienak hogeit hamar euro balio ditu. Argi daukat zaletasun bat dela, eta ez daukat dirutza ordaintzeko asmorik.

**Gaurko gazteek ba al dute zigiluetarako zaletasunik?**

Ez. Gaurko gazteek entretenimendurako tresna asko dituzte, eta gehienak telefonoarekin edo ordenagailuarekin entretenitzen dira. Filateliak behera egingo du, eta beste hainbat gauzekin gertatu den bezala, denborarekin desagertu egingo da.



## Saharako errefuxiatuentzako janaria biltzeko kanpaina abian da

Hil bukaerara arte jasoko dituzte elikagaiak



**M**endeabaldeko Saharako errefuxiatuei laguntzeko janari-bilketa hasi du Euskal Herriko Otsailak 27 elkarteak. *Piztu itxaropena* izena jarri diote kanpainari, eta Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatuek elikagaietan dituzten premiak asetzea da helburua. Arroza, pasta, lekaleak, azukrea, hegaluzea zein sardinak oliotan eta konpresak behar dituzte, bereziki. Elgoibarren, Eroski (B. Ezenarro eta Santa Ana) eta BM supermerkatuetan jasoko dituzte eskatutako produktuak, hil bukaerara arte. Kanpainan parte hartzeko interesa dutenek bi modu dituzte Saharako errefuxiatuei laguntzeko: janari bilketan parte hartuz, edo diru-laguntzak emanez. Diruz lagundu nahi dutenentzat honako kontu korrontea zabaldu dute Euskadiko kutxan: 3035 0080 94 0800054177. Informazio gehiagorako: 619 029 648.

### Laguntza, ezinbestekoa

Euskal Herriko otsailak 27 elkarteak jakitera eman duenez, errefuxiatuen kokalekua eta eremu haren egoera "berezia" dela-eta, saharar errefuxiatuek ezinbestekoa dute kanpoko laguntza Tindoufeko (Aljeria) kanpamenduetan bizirik irauteko. Elikadurari dagokionez, 1975etik hona nazioarteko zenbait erakunde arduratu dira errefuxiatuei janaria helarazten, hala nola lekaleak, irina, esne-hautsa, kontserbak... Erakunde horien artean ACNUR, Europako Batasuna, ECHO eta PMA daude. "Hala ere, janari hauek ez dira beti kanpamenduetara nahi adina, ez nahiko genukeen erregulartasunaz heltzen", adierazi dute arduradunek. Errefuxiatu sahararrek elikadura aldetik segurtasunik ez izateak ondorio latzak dakartza herritarren bizitza-kalitatean, eta osasunari dagokionean, (desnutrizioak eragindako patologiak nagusitzen dira, bereziki). Horren eraginez, beste gaixotasun batzuei aurre egiteko gaitasuna murriztu egiten da. Oinarrizko jakiak falta dituzte, eta horregatik ekin diote aurten ere kanpainari. Era berean, Saharar Emakumeen Batasun Nazionalak konpresen beharra berretsi du emakumeentzako oinarrizko eta ezinbesteko garbitasunerako produktuak direlako.

## Elgoibarko Izarrako bazkideen batzar orokorra, hilaren 22an

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak datorren eguaztenean, hilak 22, egingo du bazkideen urteko batzar orokorra. Batzarra oso garrantzitsua izango dela aurreratu dute elkarteko arduradunek, eta bilerara azaltzeko eskatu diete bazkide guztiei. 50 urteko lanaren ondoren, Elgoibarko Izarrak ziklo berri bati ekin nahi dio, eta, besteak beste, etapa berrian izan eta egingo dutenaren berri emango dute batzarrean. Elkartearen oinarri filosofikoen txostena, 2014-2016 urteetako plan-estrategikoa eta 2014ko kudeaketa-plana izango dira bilerako gai nagusiak. Horrez gain, datozen hiru urteetarako Zuzendaritza Batzordearen eta bazkide kuoten proposamena egingo dute.

Kultur Etxeko sotoan izango da bilera, 19:00etatik aurrera. Batzar Orokorrera azaltzeko asmoa daukanak aurrez jakinarazi behar du batzarrera azalduko dela, batzarrean landuko diren gaien dokumentazio txostenak jasotzeko. Izena emateko 943 741 626 telefonora deitu edo [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com) helbidera idatzi daiteke.

## Etxean konposta egiteko kanpaina

Etxean konposta egiteko kanpaina hasiko du Foru Aldundiak Debabarrenean. Etxean lortzea edo lursaila duten bizilagunentzako formazio saioa eskainiko dute urtarrilaren 20an, Elgoibarko Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera. Izena ematen duten guztiek doan jasoko dute konpostagailua, iraulgailua, gidaliburua eta konposta egiteko aholkularitza. Interesatuak 902 102 885 telefonora deitu dezakete izena emateko. Informazio gehiagorako [www.debabarrenakonpostatzen.com](http://www.debabarrenakonpostatzen.com) helbidea kontsultatu daiteke.

Mendaroko Udalak jakinarazi duenez, formazio saiorako plazak bete dira dagoeneko. Hala ere, konpostajea egiteko interesa dutenek ondorengo telefonora deitu dezakete: 943 700 799.

## Irudia **Altzola**



Altzolako hainbat zuhaitz ebaki ditu norbaitek, eta Hirigintza Saitetik salatu egin dute ekintza hori. Eraso horien arrazoiak ez dituztela ezagutzen adierazi dute, eta salatu dute horrelakoak egiteak ez daukala ez hanka eta ez bururik. Kalteak zentabaterainokoak izan diren aztertu beharko dituzte, baina horrelako mozketek zuhaitzaren heriotza ekarri dezaketela jakinarazi dute.

## Auzolana **Sargoateko Iturria**

Sargoateko iturria berreskuratzeko hasitako lanak amaitzeko deialdia egin du Morkaiko urtarrilaren 25erako. 8:00etan irtengo dira IMHko aparkalekutik, eta autoz egingo dute Sargoaterainoko bidea. Sargoateko iturria auzolanean berreskuratu nahi dute, eta ume zein nagusientzako lana egongo dela jakinarazi dute. Parte hartzeko asmoa dutenei izena aurrez emateko eskatu diete, lanerako materialaren eta jan-edanaren aurrikuspenak egiteko. Izena emateko [morkaiko@morkaiko.net](mailto:morkaiko@morkaiko.net) helbidera idatzi dezakete mezua, edo mendi elkarteak Errosario kalean duen lokalera joan daiteke, astelehen eta eguene-tan, 19:00etatik 20:30era bitartean. Morkaikoko zuzendaritzakoek eskerrak eman nahi dizkiete orain arteko lanetan parte hartu duten herritarrei, eta baita urtarrilaren 25ean joango direnei ere. Era berean, egitasmo hau diruz lagundu duten Foru Aldundia eta Ideko IK4 enpresa ere eskertu dituzte.

## **San Bizente Eguna ospatuko dute hilaren 22an**

Urtarrilaren 22an San Bizente Eguna ospatuko dute San Roken. 11:00etan meza egongo da, eta segidan prozesioa. Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

## **Maalako parkea estaltzeko ideien erakusketa hilaren 21etik aurrera**

Elgoibarko Udalak Maalako gunea estaltzeko ideia lehiaketa antolatatu du, eta proiektu horiek ikusgai jarriko ditu Kultur Etxean, urtarrilaren 21etik otsailaren 5era. Astelehene-tik zapatara egongo da erakusketa zabalik, 18:30etik 20:30era bitartean.

## **KZguneak hainbat ikastaro eskainiko ditu urtarrilean**

Urtarrilean arratsaldean egongo da zabalik Elgoibarko KZgunea, eta besteak beste, oinarrizko Internet ikastaroa, eta sare sozialak eta software libreak buruzko hainbat ikastaro eskainiko dituzte. Horrez gain, webguneak sortzeko aukera eskaintzen dute, eta tramiteak *on-line* egiteko hiritar txartela ere eskatu daiteke bertan. Informazio gehiago [www.kzguna.net](http://www.kzguna.net) helbidean edo 943 023 640 telefonoan.

- *Golian bego* -



**Guillermo Regil Irureta**

Urtarrilaren 9an hil zen, 83 urte zituela.

*Benetako euskaldun  
jatorren kidea  
beti erabili duzu  
nekezko bidea  
zuk ondo bete duzu  
euskaldunen legea*



**EA**KO ALDERDIKIDEAK



# ONDDOEN ARRASTOAN



**Onddo beltza gustuko dutenak zorronekoak dira. Olan Arquitectura y Medioambiente enpresan urteak daramatzate jateko nahiz medikuntzan erabiltzeko estimatuenak diren perretxikoak ikertzen, naturan berez gertatzen den prozesua kontrolatu ahal izateko. Labur esanda, perretxikoak “erein” eta jaso nahi dituzte, eta hasi dira emaitzak lortzen.**

**Ainara Argoitia**

**Z**eini ez zaio gertatu noizbait otzara hartuta mendira perretxikotara irten, hiru-lau orduko ibilia egin, eta perretxiko eskasik ere ikusi gabe etxeratzea? Bareak lardaskatutako piñu-perretxiko edo zizahori busti bat topatzea ere handia izaten da halakoetan. Baina perretxikoak halakoxeak dira: espezialak, “kapritxosoak”. Eta zer esanik ez onddo beltza (*boletus aereus*). Berezia da onddo beltza, eta horrexegatik da, beharbada, askorentzat horren gutzizatua. Baso argiak, arbola zaharrak eta lur azidoak ditu gustuko, eta horrek berak eta beste zenbait arrazoik, oso zaila egiten dute haren ekoizpen zikloa kontrolatzea. Elgoibarren eratu berri duten Olan Arkitektura y Medio Ambiente enpresak, baina, horretan dihardu [Aita Agirre plazan dute bulegoa. [www.olansl.com](http://www.olansl.com)].

Hiru bazkideko enpresa da Olan: Oihan Saiz eta Lander Agirregomezkorta arkitekto elgoibartarrak eta ECM ingurumen ingieritza enpresa ([www.ecmingeneriaambiental.com](http://www.ecmingeneriaambiental.com)). Azken hori mikologian espezialdutako hiru mendi-ingeniarik osatzen dute: Jaime Olaizolak, Beatriz de la Parrak eta Asier Saiz elgoibartarrak, eta Venta de Bañosen (Palentzia, Espainia) dute laborategia. Berez, arkitektura eta lurralde-antolamendua eta ingurumena uztartzen dituzten produktu eta zerbitzuak eskaintzen ditu



Asier Saiz, Oihan Saiz eta Lander Agirregomezkorta.

**Boletusaren  
aleetatik laborategian  
sortzen duten  
mizelioa ‘erein’  
dute basoan**

Olanek, baina mikologiari lotutakoa da, beharbada, guztietan berritzaileena, edo gutxiengutxienez, deigarriena.

Ikerketa-lerro ezberdinak lantzen dituzte: laborategian sortutako onddoen bidez, arbola ipurdiak modu biologikoan desegiteko proiektuak abiatu dituzte, esate baterako; azkenekoa Aranda Dueron (Burgos, Espainia). Era berean, jateko nahiz medikuntzan erabiltzeko perretxiko estimatuenak diren onddoen ekoizpena handitzeko lanean dihardute orain. Dagoeneko lortu dute esnegorri edo niskalaoa (*Lactarius deli-*



*ciosus*) eta boilurra (trufa) landatzea, eta, orain, basoak boletusaren edo onddo beltzaren mizelioarekin (onddoaren sustrai antzekoak) ereiteko, edo zehatzago esanda, inokulatzeko teknikan ari dira lanean. Barrerorien (txanpinoiak) edo makal-zizen ekoizpen zikloa nola, hala kontrolatu nahi dute, esate baterako, onddo beltzarena. Horretarako, naturak berez egiten duena gertatzea behartzen dute laborategian. Beste modu batera esanda, basoan lurpean dagoen hori bera sortzen dute laborategian: mizelioa. Iraila aldera hasten dira lanean laborategian. Bi-hiru hilabetean mizelioa sortzen jarduten dute han, eta udaberri hasieran, “lurra hezea eta zuhaitza indarrean dagoenean”, hasten dira basoan lanean.

### Prozesu luze eta konplikatu

“Guk perretxikoari berari esaten diogu onddo, baina, berez, hori ez da onddoa. Sagarrondoa eta sagarra bi gauza diren moduan, hemen ere onddoa eta perretxikoa bi gauza dira. Onddo sagarrondoa litzateke, eta perretxikoa, fruitua; kasu honeetan, sagarra. Perretxikoa haziak zabaltzeko sortzen da. Zer gertatzen da onddoen kasuan? Bada, onddoak edo hobeto esan onddoaren ‘sustraitxoak’ [hifak] arbolaren sustraiari itsatsi behar zaizkiela, perretxikoa irtengo bada. Mikorrizazioa esaten zaio horri”, azaldu du Asierrek. Mikorrizazio horri esker, landareari elikagaiak eta ura ematen dizkio onddoak, eta karbohidratoak eta bitaminak eskuratzen ditu onddoak. Harreman horretatik sortzen dira gero perretxikoak, edo sortu daitezke behintzat. “Faktore asko eman behar dira, perretxikoak hazteko. Ez da ematen duen bezain sinplea. Naturan beti dago ihes egiten duen zerbait. Euririk egin ezean, adibidez, jai dago”, aurreratu du Saizek.

Boletusaren aleetatik sortzen dute mizelioa. Horretarako, jakina, boletus perretxiko onenak aukeratu dituzte. Laborategian sortzen duten mizelioak perretxiko horien DNA (ADN edo azido desoxirribonukleikoak) bera izango du, beraz hortik sortuko den perretxikoa hazitarako erabili dutenaren “kopia” izango da. Gero, mizelio hori hartu eta basoan ereiten dute. “Aitzurrarekin lurpean zuloa egiten da arbola ondoan, eta arbolaren sustrai txikiak mizelio horrekin estaltzen dira”, azaldu du Agirregomezkor-

tak. “Jakina, hau ez da baratzean marrubiak landatzea. Hemen ez du edozein arbolak balio. Perretxikoak arbola bizia eta zaharra behar du hazteko. Pinuen kasuan, gutxienez hamabost bat urtekoak, eta urkia eta pagoaren kasuan, adibidez, hogeitertirik gorakoak”, zehaztu du Saizek.

Mizelioa erein edo inokulatu dutenetik urtebete igaro behar izaten da arbolaren sustraiak eta mizelioak bat egiteko, “elkarri itsasteko”, eta “ondo bidean” hurrengo udazkenean hasten dira perretxikoak bistaratu. Pazientzia apur bat ere behar da, beraz. “Jendeak emaitzak eskatzen ditu hasieratik. Bermeak nahi dituzte, perretxikoak irtengo direla entzun nahi dute, baina guk beti esaten diegu ekoizpen prozesuan kontrolatu daitezkeen baldintza guztiak kontrolatuta ere, beti egongo dela naturan ihes egiten duen zerbait”, argitu du Agirregomezkortak.

### Aldetz aurreko azterketa

Basoa inokulatu hasi aurretik, baina, oso garrantzitsua da lurra bera aztertea. Hala dio Agirregomezkortak. “Gerta daiteke baso horretan onddoa egotea lurrazpian, nahiz eta perretxikorik ez eman. Inokulatu hasi baino lehen, beraz, lurra eta basoa bera aztertea aholkatzen dugu guk. Onddoak egon badago, hazteko baldintza egokiak sortzen saiatuko gara, eta ez badago, mizelioa ereingo dugu”.

Onddo beltzak baso argiak eta lur azidoak maite ditu, eta horixe da aztertuko duten lehenengo gauza, arbolek behar beste argi sartzen lagatzen duten eta luraren azidotasan maila.

Hurrengo azterketa, berriz, mizelioa inokulatu eta urtebetera egingo dute. Lurreko lagin bat hartu eta boletus onddoaren DNA arrastorik dagoen ikusiko dute. Baldin badago, eta mikorrizazioa gertatu bada, zain egon behar da beste urtebetez, baina “euria egiten badu eta bestelako baldintzak ematen badira”, perretxikoak irtengo dira.

Nolanahi ere, merkatuan dauden beste tekniken ondoan, inokulazioarena “aurreratua eta eraginkorra” dela nabarmendu dute. “Perretxikoaren esporak dituen likido bat ere badago merkatuan eta guk ere badaukagu, baina haren ondoan hau eraginkorragoa da. Sagarrekin egingako konparaziora itzulita, esango genuke likido horrekin sagarrondoren haziak ereiten direla lurpean, eta inokulazioaren kontu hau sagarrondoa bera landatzea dela.

Hamar urtetik gora daramatzate teknika hau lantzen, eta gure inguruan, Markinan eta Bergaran egin dituzte frogak, bi lur-sailatan. Eta gustura daude emaitzekin. Izan ere, perretxiko aleak jasotzeko goizegi bada ere, lurrazpian onddoak badaudela egiaztatu dute.



Asier Saiz, laborategian lanean.



# AYALEW ETIOPIARRA ETA TOROITICH UGANDARRA GARAILE MUGERTZA KROSEAN

Ugandar batek irabazi du estreinakoz Mugertza krosa. Timothy Toroitich (Uganda, 1991) izan da 71. edizioko garailea eta Emmanuel Bett kenyarra sailkatu zen bigarren, bigarren urtez jarraian. Iazko irabazlea, Coneslus Kipruto kenyar gaztea, hirugarren postuan sailkatu zen. Emakumezkoetan, berriz, garaipen argia lortu du Munduko kros txapeldunordeak, Hiwot Ayalewk (Etiopia, 1990). Alemitu Haroye etiopiarrek egin zuen bigarren, eta Linet Masai kenyarra sailkatu zen hirugarren. Sailkapenak eta argazki gehiago ikusteko: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)

Zoriontsu. Mintxeta Atletismo Taldeko presidente Zigor Diezek lortutako garaipenagatik zoriondu zuen Toroitich.



Etiopiarrek nagusi emakumezkoetan: Ayalew irabazle eta Haroye bigarren.

Gizonezkoen lasterketa nagusiaren irteera. 83 lagunek amaitu zuten proba.



Atleta afrikarrak eta Ivan Fernandez euskalduna (elastiko berdearekin) lasterketa buruan.







Korrikalariak igerilekuen ondotik pasatzen.



Kolore berdea nagusi Mintxetan.

Lorea Santiago elgoibartarra, Mamo Wolde Saria lasterketan antxitxika.



Junior mailako lasterketako partaideak.



Carlos Moyanok irabazi zuen Mamo Wolde Saria.



Dena emanda iritsi ziren helmugara atleta asko.





## Haritz Goikoetxea

EMUN Kooperatibako teknikaria

Haritz Goikoetxearen (Mendaro, 1976) 'Lantokietako ahozko erabileraren neurketak. Interpretaziorako eta interbentziorako hainbat gako' izeneko lana saritu du Soziolinguistika Klusterrak, Hausnartu Euskal Soziolinguista Sarien seigarren edizioan. Goikoetxeak EMUN Kooperatiban dihardu lanean azkeneko bederatzi urteotan, hizkuntza zerbitzuen alorrean.

Ainara Argoitia



## “Euskaraz lan egiteak balio erantsia ematen dio enpresari”

Soziolinguistika Klusterrak antolatutako VI. Hausnartu Soziolinguistika sarietako sari nagusia irabazi duzu. Zer da zuretzat sari hau?

Edozein sari bezalaxe, errekonozimendu bat da, ez niretzat edo EMUNentzat bakarrik, baita ahozko neurketen metodologia garatzen ibili diren eta dabilzan Euskal Herriko hainbat eta hainbat adituentzat ere. Kontuan izan behar dugu, aditu horien lanari esker, ahozko neurketak egiten Euskal Herria erreferente dela munduan.

'Lantokietako ahozko erabileraren neurketak. Interpretaziorako eta interbentziorako hainbat gako' izenburua jarri zenion lanari. IMHren 30+10 mintegian aurkeztu zenuen

gai hau. Azalduiguzu zeintzuk izan diren lanketa honen ondorio nagusiak.

Egindako ikerketatik bi ondorio nagusi azpi-

**“Euskaldunek bakarrik parte hartzen duten elkarrizketetan hirutik bitan hitz egiten da euskaraz”**

marratuko nituzke. Orain arte, euskarazko elkarrizketak zenbat ziren jakin genezakeen bakarrik, baina ez genekien zeintzuk ziren datu on edo txar horren atzean zeuden arrazoiak. Ikerketari esker, erabileran eragiten duten bost faktoreak identifikatzera iritsi gara: elkarrizketetako partaide kopurua, partaide horien euskara ezagutza, euskaldunen leialtasuna, hiperleialtasuna eta trinkotzea. Datu esanguratsua da, adibidez, leialtasunarena, hau da, bakarrik euskaldunek parte hartzen duten elkarrizketetatik zenbat izaten diren euskaraz; ikerketari esker, batez beste hirutik bi izaten direla jakin ahal izan dugu. Enpresetan baino kalean gehiago hitz egiten da euskaraz. Arrazoa?

Batetik, enpresetan ez bezala, kalean ume-ek eta gazteek parte hartzen dutelako, euskara ezagutza altuena dutenek, hain zuzen ere; bestetik, kalean elkarrizketarako solaskideak neurri handi batean guk aukeratzen ditugulako, eskolako lagunak adibidez eta enpresan, aldiz, lanpostuak markatzen ditu lan-harreman gehienak eta horrek asko zailtzen du euskaldunak euskaldunekin elkar-tzea.

**Euskararen normalizazioan eragiteko sortu-tako enpresa-kooperatiba da zuena. EMU-Nen aholkularitzapeko enpresetan eginda-ko neurketek zer erakusten dute? Bat da-toz kale neurketek erakusten duten joerare-kin?**

Datu bat ematearren, 2011n egin ziren az-ken inkesta soziolinguistikoko datuei erre-paratzen badiegu, lankideekin euskararen erabilera %13,5etik %19,6ra pasatu da az-ken hogeitun urtean, eta etxean, seme-alabe-kin edo lagunekin baino gehiago hitz egiten dugula aitortzen dugu euskaldunok.

**Enpresek zuengana jotzen dutenean, ze beharrek bultzatuta jotzen dute? Zerk kez-katzen ditu? Zer eskatzen dute? Zerk moti-batzen ditu euskararen planak abian jartze-ko?**

Arrazoiak desberdinak izan daitezke: kasu batzuetan izan daiteke enpresako talde euskaltzaleren batek hala eskatu duelako jartzea euskara plana martxan; beste kasu batzuetan, berriz, zerbitzua euskaraz ere eskainita bezeroa gustura edukitzea nahi izan dezake enpresa batek. Aurrezki kutxen eta supermerkatuen kasua bigarren hori izan daiteke, adibidez.

**Euskararen erabilera planak dituzten enpre-sak badira gure inguruan, baina oro har har-tuta, zein toki du gaur euskarak gure gertu-ko enpresa munduan?**

Gure inguruko enpresa garrantzitsuenek dute euskara normalizatzeko plana mar-txan: Realak, Laboral Kutxak, Kutxabankek, Irizarrek eta gertuago, Danobatek, Goitik, Idekok, Teknikerrek eta beste hainbatek. Enpresa handi horiek erakarrita, enpresa txikiagoak erakartzea da datozen urteetako erronka.

Pasa den astean kooperatiba bateko lehen-dakariak aipatutako datu bat erabiliiko dut

euskara planen emaitzak azaltzeko; gai ma-mitsu bati buruz eztabaidatu zen bilera ba-tean euskara hutsez aritu ziren hainbat koo-peratibatako 14-15 zuzendari eta lehenda-kari, eta akta ere euskara hutsez jaso omen zuten. Hori lortzeko, aurretik motibazio edo xaxatze eta trebakuntza lana egin behar da nahitaez. Hori da, hain zuzen ere, euskara planen bidez egiten duguna.

**Ez dituzte garai errazak bizi enpresek, eta askotan entzuten diegu enpresaburuei in-bertsioak egiteko ere zailtasunak dituztela. Eta jakina, euskararen inbertitzea ez dago as-koren lehentasunetan. Nola egin euska-aren normalizazioan duten arduraz jabetzeko eta nola egin euskararen balioaz jabe daite-zen?**

Euskaraz lan egiteak edo euskarazko zerbi-tzua emateak balio erantsia ematen dio en-presari; mundu global batean bizi gara, bai-na langilearen edo/eta bezeroaren hizkun-tza aukera errespetatzen duen eta hizkun-tza desberdinak kudeatzen dakien enpre-sak gauza asko transmititzen ditu: irudi ber-ritzailea, gertutasuna, bezeroaren gogobe-tetzeaz ardura, bertakotasuna, langileen ar-teko giroa hobetzea... Gainera, instituzioek diruz laguntzen dituzte plan horiek eta, onu-rak ikusita, euskara planak errentagarriak dira.

**Debagoieneko kooperatiben altzoan hartu zuen indarra enpresen euskalduntzeak. Hango enpresetan diharduzu aholkularitza eskaintzen. Zer dute haiek erakusteko? Zer dago haiengandik ikasteko?**

Herrietako euskara taldeentzat edo euska-razko komunikabideentzat Debagoiena erreferente izan da, handik abiatu baitziren. Gainera, kooperatibagintzak ere berezi egi-ten du Debagoiena. Bi aurrekari horiek iku-sita, ez da hain arraroa lan-munduaren eus-kararen normalizazioan ere Debagoienak li-dergoa izatea.

**Legez zertara lotuta daude enpresak eus-kararen alorrean? Legearen babesaz gain, zer beste behar du euskarak mundu horre-tan lekua irabazteko?**

Hor daude Kontsumitzaileen Dekretua edo kontratazioetarako Gipuzkoako Aldundiak eta hainbat udalek ezarritako hizkuntza-iriz-pideak. Mondragon korporazioak berak ere

hainbat jarraibide ezarri dizkie taldeko koo-peratibei. Testuinguru hori baliatzeaz gain, norbanakoen jarreretan eta portaeretan era-gin behar dugu euskararen normalizazioa lortzeko.

**Zein tresna ditu enpresa batek euskararen normalizazioan laguntzeko?**

Asko, gehienak ez esatearren, enpresaren beraren esku daude. Guk aholkularitza eta laguntza ematen diegu, baina enpresako langileek aukeratzen dituzte eritimoa, zein alderdi landu...

**Eskolak euskaldunduko gintuela sinistu ge-nuen garai batean, eta garbi dago eskolare-kin bakarrik jai dagoela, baina gaur lan-mer-katuan sartzen denak, gutxi-asko, badaki euskaraz. Nola egin genezake erdaraz ho-beto moldatu arren euskaraz badakien lan-gile berri hori motibatuzko? Zer ardura du horretan enpresak?**

Langile hasiberria, erdalduna edo elebiduna izan, enpresako hizkuntza kulturara egoki-tzen da; euskalduna izan eta euskaraz ikasi badu ere, enpresak erdaraz funtzionatzen badu, berak ere erdaraz egingo du lan. Lan-gile horiengan eragin nahi badugu bi bideta-tik egin dezakegu: batetik, zuzenean euska-raz eginaraziz, galdetu gabe; horrela, harre-ra plana, office programak, jakinarazpen orokorrak eta antzekoak euskara hutsez ja-ri daitezke eta hala egiten dugu enpresa batzuetan; bestetik, aukera eskainiz eta lan-gileari euskarazkoa aukeratzera animatuz.

**IMHn aurkeztu zenuen mintegiko power-pointean badago datu bat deigarri egin zai-guna. Enpresan euskaldun kopurua berdina izanda, ahozko erabilerak behera egin du, eta aldiz, leialtasunak gora. Azalduiguzu ho-ri. Zeintzuk arrazoi daude horren atzean?**

Ahozko erabilera datuaren atzean dauden bost arrazoietako bat da leialtasuna; bes-te bat, trinkotzea da, adibidez. Posible da leialtasunak gora egitea, hau da, bakarrik euskaldunek parte hartzen duten elkarriz-ke-tetan gero eta gehiago hitz egitea eus-karaz; baina gerta daiteke trinkotzea jais-tea, hau da, bulegoetan langileen banake-ta berriarengatik-edo, gero eta gutxiago izatea euskaldunetz osatutako elkarrizke-tak. Ondorioa azken erabilera datua jais-tea izan daiteke.

## Kultur eskaintza zabala izango da San Anton jaietan

Antzerkia eta musika izango dira nagusi



**S**an Anton Eguna ospatuko dute bihar elgoibartarrek, eta horren harira, kultur eskaintza oparoa antolatu du Udalak astebururako. Antzerkia eta musika izango dira nagusi: Txalo produkzioak *Hiru* antzezlanaren taularatu du bihar Herriko Antzokian, 20:30etik aurrera. Loli Astoreka, Miren Gojenola eta Ana Elordirekin batera, Zuhaitz Gurrutxaga elgoibartarrak hartuko du parte antzezlanean. Domekan, bestalde, umeentzako *Alabatxo* antzezlanaren ekarriko du Tartean antzerki taldeak. 16:30ean hasiko da ikuskizuna.

Emudafek antolatuta, bestalde, San Anton jaietako musika emanaldia izango da bihar Herriko Antzokian, 12:30etik aurrera. Etxeko txikientzat haur parkea jarriko dute Kalegoen plazan (euria bada, Ikastolan), eta 17:00etatik aurrera erraldoi eta buruhandien kalejira izango da.

Zapatuan, bestalde, Elgoibarko alde zaharra ezagutzeko bisita gidatua eskainiko du Pello Arrieta historialariak, 11:30etik aurrera. Horrez gain, zigilu erakusketa martxan da dagoneko, eta domekara arte egongo da.

## Baserriz-baserri santa eskean irteteko gonbitea egin die Elgoibarko Izarrak herritarrei



Baserriz-baserri irtengo dira kantuan eta eskean Elgoibarko Izarrako kideak, Santa Ageda bezperan (otsailak 4). 1994an berreskuratu zuen elkarteak ohitura zahar hau, eta aurtengoa 20. edizioa izango da. 14:30ean elkartuko dira Kalegoen plazan, eta bi taldeetan banatuta, Elgoibarko baserri auzoetara abiatuko dira kopia kantari. Egunari amaiera emateko, Aiastiako soziedatean afalduko dute. Koruetan parte hartu nahi dutenek urtarriaren 28rako eman behar dute izena Elgoibarko Izarrara deituta (943 741 626) edo [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com) helbidera idatzita.

## Kiko Riveraren musika emanaldia, bihar

Kiko Riverak musika saioa eskainiko du bihar, urtarilak 17. Guass dantzalekua egon zen orubean erai-ki zuten aparkalekuan eskainiko du emanaldia, bertan jarriko duten karpin, hain zuzen ere. 21:00etan irekiko dute karpa, eta 00:00etan hasiko da Kiko Riveraren emanaldia.



## Lau filmez osatutako zine zikloa eskainiko du Ongarrik

Cannes zinemaldian saritutako eta Goya sarietarako izendatuta dauden filmez osatutako zine zikloa prestatu du Ongarrik. Urtarrilaren 23an *La vida de Adele* film frantsesa eskainiko dute. Iazko Cannes jaialdian pelikula onenaren urrezko saria eskuratu zuen filmak. Urtarrilaren 30ean, bestalde, *De tal padre tal hijo* film japoniarra eskainiko dute. Honen epaimahaiaren saria jaso zuen Cannes-en. Bestalde, aurtengo Goya sarietan pelikula onenaren atalarako izendatuta dauden bi film ekarriko dituzte: *La herida*, otsailaren 6an eta *Canibal*, otsailaren 13an.





# Bihar gauean jokatuko dute San Anton pilota txapelketa, Ikastolan

22:00etatik aurrera jokatuko dira partidak

**S**an Anton pilota txapelketa bihar jokatuko da, San Anton Egunean, hain zuzen ere. Ikastolako frontoian izango da, eta bi partida jokatuko dituzte, 22:00etan hasita. Lehenengoan herriko pilotariak arituko dira: Kepa eta Lizarralde, Agirrebeña eta Txurruken kontra jokatuko dute. Bigarren partidari, bestalde, Urbietan II.a eta Urruzola, Murgiondo eta Atxotegiren kontra lehiatuko dira.

Lehen hiru jaialdi izaten ziren, eta guztira zortzi bikotek hartzen zuten parte txapelketan, baina Lagunak pilota eskolako kideek jakinarazi dutenez, krisiaren eraginez, egun bakarrean egingo dute aurten.



## Mendaroko mendi lasterketarako izena emateko epea zabalik dago

Apirilaren 13an jokatuko da aurten Mendaroko mendi lasterketa, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Interesatuak [www.herrikrosa.com](http://www.herrikrosa.com) webgunean eman dezakete izena, 17 euro ordainduta. Ibilbidea 25 kilometrokoa izango da, eta korrikalariek 1.350 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute. Ibilbidea aurreko edizioetakoaren antzekoa izango da, baina baliteke azken kilometroetan aldaketaren bat egotea. Iaz 153 lagunek hartu zuten parte. Aurten kopuru hori handitu egingo dela uste dute antolatzaileek, eta badaezpada, 250 laguneko muga jarri dute.

Antolatzaileek Kilimon Trail izena jarri diote probari, Kilimon bailaran zehar egiten delako ibilbidearen gehiengoa.

## Xoxotera irteera antolatu du Morkaikok, Ikastolako eta Herri Eskolako umeentzako

Xoxotera irteera antolatu du Morkaikok urtarrilaren 26rako, Herri Eskola eta Ikastolarekin elkarlanean. Aittolako aparkalekuraino autoz joango dira, eta handik abiatuko dira oinez, Xoxoteraino. 7,5 kilometroko ibilbidea izango da, 350 metroko desnibel positiboarekin. Ume zein gaztetxoek hartu dezakete parte irteeran, baina umeak ezingo dira bakarrik joan, derrigorrez arduradunen bat joan beharko da beraiekin. 9:00etan irtengo dira Guass dantzalekuko aparkalekutik, eta bazkal-tzera etxera itzuliko dira. Interesa dutenek Herri Eskolan edo Ikastolan eman beharko dute izena.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Alaves 5 – Haundi 0 (3. maila)  
Eibartarrak 2 – Elgoibar 1 (Erreg.)  
Elgoibar 2 – Aurrera Vitoria 5 (Neskak)  
Elgoibar 2 – Kostkas 1 (Jub. A)  
Real Sociedad 6 – Elgoibar 2 (Kad. A)  
Orioko 3 – Elgoibar 0 (Kad. B)  
Elgoibar 10 – Zestoa 2 (Inf.)  
Arrasate 1 – Elgoibar 1 (Inf. Txiki)

### ARETO FUTBOLA

Hirukide Eskolapioak 2 – King Kong Elg. 2 (Jub.)  
Concepto Egile Elg. 7 – Siguenza 4 (2B)

### ESKUBALOIA

Urola 21 – Gabaz Elg. 26 (Sen. mut.)  
Usurbil 30 – Pneumax 19 (Kad. mut.)  
Murgil Elg. 17 – Urnietako 18 (Kad. nesk.)  
Alcorta Elg. 26 – Casablanca 28 (Sen. mut.)  
Lauko Elg. 26 – Basauri 16 (Sen. nsk.)  
Tecnifuelle Elg. 28 – Pulpo 10 (Kad. nesk.)  
Astigarraga Elg. 34 – Pulpo 22 (Jub. nesk.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 18

16:30 Haundi – Oiartzun (3. maila)  
12:00 Elgoibar – Zumaiako (Kad. A)  
10:00 Elgoibar – Soraluze (Inf.)

Domakia, 19

16:00 Elgoibar – Zumaiako (Erreg.)  
12:30 Elgoibar – Urki (Kad. B)  
11:00 Elgoibar – Zumaiako (Ale. A)  
11:00 Elgoibar – Zumaiako (Ale. B)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 18

10:00 Ikus Elg. – Aiala (Inf. nesk.)  
11:15 Murgil Elg. – Alaves (Kad. nesk.)  
16:30 Tecnifuelle Elg. – Zuazo (Kad. nesk.)  
18:00 Astigarraga Elg. – Zuazo (Jub. nesk.)

Domakia, 19

10:30 Aterpe Elg. – Aiala (Inf. nesk.)  
11:15 Cometel Elg. – Aiala (Inf. nesk.)

### PILOTA

Barixakua, 17

San Anton txapelketa

22:00 Kepa / Lizarralde – Agirrebeña / Txurruka  
23:00 Urbietan II / Murgiondo – Atxotegi / Urruzola

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **943 043 975**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentzia onak. ☎ **943 031 329 / 645 366 354**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, eta etxeko lanak egiteko. ☎ **675 358 118**
- Gizonezkoa lan bila. Tabernan zein jatetxean zerbitzari lanetan aritutakoa. ☎ **692 332 871**
- Gizonezkoa lan bila. Pinturan esperientzia. ☎ **617 694 603**

- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko, garbiketak egiteko edo zerbitzari lanetarako. ☎ **631 549 224**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Erreferentzia onak. ☎ **691 073 462**
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta gaixoak zaintzeko. ☎ **677 097 015**
- Gizona eraikuntzan lan egiteko prest. Lorezaintzan, pintaketan eta biltegiko mantenu lantean esperientzia. ☎ **628 818 558**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko. Esperientzia daukat. Paperak legez ditut. ☎ **638 863 019**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko. Orduka. ☎ **680 121 252**

- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. ☎ **654 304 337**

**ESKAITZA**

- Adineko pertsona bat zaintzeko norbait behar dugu, Sorraluzen. 50 urte baino gehiago izatea eskatzen da. Interna moduan egingo luke lan. ☎ **677 425 560 / 943 740 187**

**BESTELAKOAK**

- Hormako pianoa salgai. Egurrezkoa, kolore iluneko. Egoera onean. ☎ **645 720 601**
- Samsun Galaxy markako sakelako telefonoa aurkitu dut Maala inguruan. ☎ **662 675 714**



II. URTEURRENA

## MARI KARMEN GABILONDO ETXABE

*Bihotzean min dut, min etsia,  
negar ixila darion mina.  
Maiteñoa non: bi urtez, enarak  
etorri garaiez, aldegin.*


(Xabier Lizardi, 1930)

2012ko urtarrilaren 19an hil zen.

II.urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 19an, izango da eguerdiko 11:30ean Elgoibarko San Bartolome parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.

**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**




**- Gure komunitateko etxebizitza batean banandu berri den bikote bat bizi da, eta emazteak hartu du orain etxea. Banatzekotan ibili diren tarte horretan ez batuk ez besteak ez dituzte komunitateko gastuak ordaindu. Momentu honetan etxea hutsik dago, jabea atzerrian dago, eta ez daukagu haren helbiderik. Zer egin genezake?**

Etxearen jabeari dagokio komunitateko gastuak ordaintzea, bai banandu aurretik eta bai ondoren. Atzerrian egotea berez ez da eragozpen, kuota horiek ordain ditzala exijitzeko.

Legez etxe-jabeak behartuta daude helbide bat ematera, jakinarazpenak bidaltzeko eta deialdien berri emateko. Ez badu ematen, orain hutsik dagoen etxebizitza hori hartuko da bere helbidetzat. Etxea hutsik baldin badago, iragarki-taulan jarri genezake zorraren zenbatekoa eta modu horretan jakinarazteko egon diren arrazoiak. Ohar hori iragarki-taulan jarri eta hiru egunera, jakinarazitzat emango da eta komunitateak aukera izango du bizilagun hori auzitara eramateko, zorra ordain dezan.

**Gomendioa: Komeni da mota horretako jakinarazpenak profesional batek egitea, lege-eskizun guztiak bete daitezten.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Asociación Vasca de Administradores de Empresas



• Zorionak, **Ibon**, zure 4. urtebetetzeari. Muxu asko, familiakoen partez.



• Zorionak, **Axular**, Konturatu orduko, 3 urte! Muxu potolo-potolo bat etxeko dantzariari, Aratz, aitaxo eta amaxoren partez.




• Zorionak, **Manex**, asteartean 6 urte egin zenituelako. Patxo handi bat denon partez.



• Zorionak, **printzesa**, asteartean 4 urte egin zenituelako. Aitaxo eta amaxoren partez.



• Zorionak, **aittitta Paulo, Iker eta Nere**, hilaren 15ean, 17an eta 30ean, 80, 10 eta 3 urte egin dituzuelako. Muxu handi-handi bana.



• Zorionak, **Maren**, Etxeko printzesa txikiak 2 urte! Askoi maite zaitugu. Etxekoak, eta bereziki, Gadeak.



• Zorionak, **Estanis**, danborrada egunean 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.

<p><b>PREZIOAK</b> Erretratu bakarreko agurra <b>4'50€</b> Argazki bikoitza <b>7€</b> Hirukoitza <b>9€</b> Hiru lagunetik gorako taldeak <b>15€</b></p>	<p><b>ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK</b> Erretratu bakarreko agurra <b>3'50€</b> Argazki bikoitza <b>6€</b> Hirukoitza <b>8€</b> Hiru lagunetik gorako taldeak <b>12€</b></p>	<p>Argazkiak <b>eguzten eguerdia (12:00etarako)</b> baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, edo <a href="mailto:barren@elgoibarkoizarra.com">barren@elgoibarkoizarra.com</a> e-postara bidali.</p>
---	--	--



ESKERTZA

## GUILLERMO REGIL IRURETA

2014ko urtarrilaren 9an hil da, 83 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





# Konfiantzan IKASTOLA

HH 0 (2013an eta 2014an jaiotakoak)  
otsailetik ekainera hasteko  
matrikula zabalik  
urtarrilaren  
13tik 24ra






## 17 barixakua

### Musika

00:00 Kiko Rivera

Kiko Riveraren musika emanaldia, Maalan. 21:00etan irekiko dute karpa.

### Jaiotza mekanikoa

10:30 Parrokiako jaiotza

Jaiotza mekanikoa ikusteko azken eguna.

## 21 martitzena

### Erakusketa

18:30 Ideien erakusketa

Maalako parkea estaltzeko ideien erakusketa, Kultur Etxean. Otsailaren 5era arte egongo da ikusgai.

## SAN ANTON JAIAK

### 17 BARIXAKUA

11:00 Meza Nagusia

San Bartolome parrokian.

11:30-14:00 / 16:30-19:30 Haur parkea

Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Ikastolan)

12:30 San Anton kontzertua

Emudafek antolatuta, Herriko Antzokian.

17:00 Erraldoi eta buruhandiak

Zezenzikletekin eta dultzaineroekin.

20:30 Antzerkia

Hiru antzezlan, Herriko Antzokian.

22:15 Pilota

San Anton pilota jaialdia, Ikastolan.

### 18 ZAPATUA

11:30 Elgoibar Ezagutzen

Pello Arrieta historialariak gidatuta, kasko historikoa ezagutzeko hitzaldia.

### 19 DOMEKA

16:30 Antzerkia

Alabatxo antzezlan, Herriko Antzokian.

\* Zigilu erakusketa domekara arte egongo da zabalik. 12:00-14:00 / 18:30-20:30

**BOTIKA ORDUTEGIAK:** 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

<p><b>09:00 - 22:00</b> 16 Fernandez 17 Ibañez 18 Zabaleta 19 Zabaleta 20 Etxeberria 21 Ibañez 22 Garitaonandia 23 Barrenetxea</p>	<p><b>22:00 - 24:00</b> Astelehenetik igandera  Yudego</p>	<p><b>24:00 - 09:00</b> Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)</p>
--	--	--

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

## ZINEA

«La vida de Adele»  
(Ongarri)

23, eguna: 21:30

«3 bodas de más»

18, zapatua: 19:00 /  
22:15

19, domeka: 19:00

20, astelehena: 21:30

### ESKERTZA

## ISIDORO GOIKOLEA ELEXPURU

2014ko urtarrilaren 12an hil da, 94 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### II. URTEURRENA

## JESUS MARI ZUBIAURRE MUGERZA

2012ko urtarrilaren 14an hil zen, 81 urte zituela.

Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 18, arratsaldeko 19:00etan Altzolako San Juan Bautista elizan. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



**BADIRA ATE BAT IREKITZEAN  
HASTEN DIREN PROIEKTUAK**

“ Graduko azken ikasturtea atzerrian egiteko abagunea eman didate, eta neure burua aberasteko oso baliogarria izango delakoan, ez diot aukerari uko egingo.

**Matxalen Palacio,**  
Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza,  
4. maila.



**PREST**



**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**

## ATE IREKIAK

### GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**GOIERRI · URTARRILAK 23**

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

**DONOSTIALDEA · OTSAILAK 1**

Larunbata, 10:30 / Orona Fundazioa

**ARRASATE · OTSAILAK 8**

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

### ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

**OÑATI · OTSAILAK 8**

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**BIDASOA · OTSAILAK 13**

Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

**BILBAO · OTSAILAK 15**

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

### HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**ESKORIAMATZA · OTSAILAK 8**

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETA · OTSAILAK 8**

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

### GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center

**DONOSTIA · OTSAILAK 13**

Osteguna, 18:00 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

**902 110 436**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)





**Elgoibar herri euskalduna izateko 50 urteko herri-ahaleginaren ondoren,  
bidean aurrera egitera goaz.**

**Bazkide eta euskaltzaleokin batera, orain arte bezala.**

## **BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA**

Elkartearen etorkizunari eutsiko dioten oinarriak eta zutabeak onartu behar ditugu

**Urtarrilak 22, asteazkena, 19:00etan  
Kultur Etxeko sotoan**

**Izena aurrez ematea komeni da, batzarrean aztertuko diren  
dokumentuak aurrez jasotzeko.**

## **SANTA AGEDA ESKEA**

Kantuan eta eskean, baserriz baserri, tradizioak agintzen duen moduan

**Otsailak 4, asteartea, 14:30ean, Kalegoen plazan**

**Izena emateko azken eguna: urtarrilak 28  
(943 741 626 - [imanol@elgoibarkoizarra.com](mailto:imanol@elgoibarkoizarra.com))**

*Euskaldunok batzen gaituena banatzen gaituena baino garrantzitsuagoa delako.*

*Hala zen duela 50 urte, eta baita gaur egun ere.*